

«Gipuzkoar enpresak konpetibitate galeraren errekorra gainditu du»

Adegik neurrizko soldata igoerak eskatzen ditu industri hazkunderari eusteko

Gipuzkoako enpresak «konpetibitate galeraren errekorra gainditu du» adierazi zuten Gipuzkoako Enpresarien Elkarte (ADEGI) arduradunek atzo Donostian izan zen elkarte honen aurtengo Batzarre Nagusian. Ekitaldi horretan, Jesus Maria Arregi Adegiko presidente aukeratu zuten.

J. A. / DONOSTIA

Adegiko buruzagiek aurreneko adierazpena argudiatzeko azaldu zuten, Gipuzkoako enpresen produktzioa % 27,6 garestitu da Alemania eta EEBBetako produktzioaren aldean, % 21,4 Frantziakoarenean eta % 12,8 Italiakoarekiko. Euskal eta gipuzkoar enpresen 1990. urteko ekitaldiko balantzea egiterakoan, erregulazio espedienteak, ordainketa etendurak eta eskaria murriztea izan dira EAEko industri sektoreetan nagusienetan —papergintza, altzairugintza, makina-erreminta eta ekipo ondareak—. Guzti honek adierazten du, Adegiren ustez, iazkoa ez dela urte ona izan euskal ekonomiarentzat. Testuinguru honetan eta Golkoko



Jesus Maria Arregi eta Imanol Murua Adegiko batzarrean. CARLOS VILLAGRAN

gerrak izan zuen «bukaera zoriontsua» gorabehera, «gerta litekeen errekupeziarako trantsiziozko urtea da 1991», Gipuzkoar enpresarien ustez, eta «errekupeziario honen lehendabiziko ondorioak datorren urtean agertuko dira».

Imanol Murua Gipuzkoako diputatu nagusia, Xabier Albistur Donostiako alkatea eta EAEko beste agintari batzuk izan ziren, Jesus Maria Arregi eta Adegiko beste kideekin batera, Batzarreko partaideak.

GIPUZKOAKO ENPRESEN EGOERA

Gipuzkoar herrialdeko enpresak aipatuz —industrialak, esportatzaileak eta enpresa txiki eta erdi mailakoak— enpresa hauek atzeritarren konpententziarekin lehiatu behar dute eta «Europako interes tiporik zein soldata igoerarik altuenak dituzte», pezeta gainbaloratua dagoen testuinguru batean.

Hori dela eta, enpresa gipuzkoa-

rrek «beren kostuak merkatuak ezarritako prezioetara egokitu behar dituzte». Atzoko batzarrean aipatu zenez, «egokitze hau inbertsioen bidez produktibitatea hobetuz bakarrik egin liteke eta honek monetal politikaren aldaketa behar luke». Adegiko arduradunen iritziz, interes tipoen bidez pezetaren balioa jaitsi behar da.

Azpiegituren garapen honi dago-kionez, Eusko Jaurlaritzak dituen egitasmo teknikoekin jarraitu eta Europa 93 plangintzan aurrikusita dauden proiektuak aurrera eramateko animatu du Adegik.

Euskal industriaren hazkundeak pairatzen duen geldikeria dela eta, Adegik neurrizko soldata igoerak eskatu ditu, igoerak produktibitate hazkundeak gainditu ez ditzan. «Soldata eskakizunak errealitate honetatik urrun daude, 1990. urtean gertatu zen eta aurrean ere gertatzen ari den bezalaxe». Euskal eta gipuzkoar enpresek duten lan kostuak neurriz gainetik igo dira, EEEko lurraldeetakoak baino % 11,5 gehiago. Guzti horrek «industri ihardueraren kalterako izan da». Adegik Euskal Herriko oinarri industrialaren sendotu beharra azpimarratu zuen. Horretaz, Industri Sailak bere presupostua % 2,7 jaitsi izana kritikatu zen.

Enplegu eta heziketa politikak bateratu nahi ditu Auzmendik

K.A. / DONOSTIA

«Lan sustapenerako politika eta lan heziketa elkarloturik garatu behar dira», adierazi zuen Martin Auzmendi EAEko Lan kontseilariak. Auzmendi EAEko enplegu eta heziketarako hogeitamabi bailaretako komiteekin bildu zen atzo Gasteizen, Lan Kontseilariak komiteei buruz eta garaturiko plangintzei buruzko argitarapenak aurkezteko.

Bailaretako komiteak birziklaketa eta heziketa planak egiteko sortu diren lantaldeak dira. Lan kontseilariak adierazi zuenez, «enpresak, langileak, hezkuntza zentruak eta erakunde lokalak biltzen diren lehenengo aldia da, politika konkretu koordinatuak egiten elkarlanean jarduteko». Auzmendik «bailaretako komiteen esperientzia mantentzeko gogo» adierazi zuen.

TCSAko greban langileen bizkar negoziatu zela salatu du LABek

BILBO

Bilboko garraio publikoaz arduratzen den TECSA enpresako LAB sindikatuak UGT eta CCOO salatu ditu enpresa honetan joan zen astean izandako grebari amaiera emateko zuzendaritza eta erakundeekin negoziazio ezkutuan egin zituztela ziurtatuz. Negoziazioetan langilegoaren % 40 ez zela egon dio LABek.

Sindikatuak azaldu duenez, negoziazio hauen ondorioz Bilboko bidaiari garraioko greba bukatzeko egin zen bozketan 330 langilek eman zuten baiezkua, 207k ezezkoa 7 boto zuri izan ziren eta 2 baliorik gabeak, guztira 546, langilego osoa 930 langilek osatzen duten bitartean.

TCSAko langileek grebari ekin ziotenetik «langile zein sindikatuaren batasuna izan zen» adierazi du sindikatu abertzaleak, eta «batasun hori CCOO eta UGTek apurtu dute PSOE eta erakundeetako arduradunekin langileen bizkar negoziatuz, ELA eta LAB, bazterturik geratu direlarik».

Bizkaiko Correoseko langileek greba egin dezakete 17tik aurrera

M.A. / BILBO

Bizkaiko Correoseko langileek datorren 17tik aurrera greba muga gabea burutzeko deialdia egin dute, «zerbitzuan dagoen kaosa eta plantila faltari erantzun diezaien Lurralde Zuzendaritzak». Langileek datorren asteazkenean egingo duten asanbladan hartuko dute grebari buruzko azken erabakia. Greba deialdia funtzionariak biltzen dituen Pertsonal Batzordeak eta Enpresa Batzordeak egin dute aho batez. Bi batzorde hauetan ELA, LAB, ESK eta CCOO sindikatueta-ko ordezkariak hartzen dute parte eta 200 funtzionari eta 250 langile laboral inguru ordezkatzak dituzte. Sindikatu hauetako ordezkariak

atzo Bilbon adierazi zuten, «Correoseko egoera, marko juridikoaren aldaketarekin eta zerbitzu publikoari merkatal kutsua eman nahi izatearekin batera larriagotu egin da. Zentzu honetan eman diren berrestrukturazio eta erreformek plantilaren murriztea eta kontratazio kopurua jaistea ekarri dute».

Kontratazio kopurua % 31 jaitsi da aurrean, zerbitzu berriak jarri dira eta ondorioz izan den produktibitatearen hazkunderari orain dauden langileek egin behar diote aurre. Beraien ustetan helburu bakarra «irabaziak izatea» da.

Langileek salatu zuten, zerbitzuetan isladatzen den funtzionari eta laboralen lan baldintzak txartu egin dira azken aldian, «ez dira



Postako langileek zerbitzu kaosa eta plantila falta aipatzen dute.

errespetatzen legez ditugun egun libreak eta hutsik gelditzen diren lanpostuak ez dira betetzen».

ESK, LAB, ELA eta CCOO sindikatuak plataforma bateratua burutu dute beren eskakizunekin. Biz-

kaiko zuzendaritzari eginiko proposamen honetan, langileei dagozkien oporraldi, baja edo baimenduriko egun edo denbora libreerako pertsonalaren kontratazioa bermatzea eskatzen da besteak beste.

Arrasate Kultur Aretoa

Arrasate, 12
Donostia - San Sebastián

Ordutegia

19,30 h.

Sarrera dohain

"Etxe Eskualdetarren" Gipuzkoako I. Zikloa

Dokumentalen emanaldiak 1991

Maiatzak 14
Catalunya

Maiatzak 15
Extremadura

Maiatzak 16
Galizia

Maiatzak 17
Rioja



kutxa

gipuzkoa
donostia kutxa
caja gipuzkoa
san sebastián